



BIGARREN ARIKETA PRAKTIKOA EGITEKO JARRAIBIDE ESPEZIFIKOAK.

GEHIENEO PUNTUAZIOA: 25 puntu. Gutxienez 14 puntu lortu beharko dituzu.

Mahai gainean, jarraibide-orri honetaz gain, material hau eduki beharko duzu:

- Gutun-azal handi bat, honako hauekin:
 - Test motako galdera-koadernoa eta A ereduaren edo B ereduaren artean aukeratu beharreko ariketa praktikoak.
 - Erantzun-orri bat test motako ariketarako.
 - Gutun-azal txiki bat, identifikazio-txartel batekin, adierazten denean betetzeko.
- Esandakoan, atera gutun-azal txikitik zure identifikazio-txartela eta idatzi bertan eskatutako datuak. Sar ezazu gutun-azal txikian.
- Test motako erantzun-orriak NAN zenbakia bakarrik izan behar du beteta (ez idatzi izen-abizenik).
- Ondoren egingo duzuen azterketa honako zati hauei idatziz erantzutean datza, gehienez ere ordubeteko epean:
 - Test motako ariketa praktikoak, nahitaezkoa.
 - Epaimahaiak proposatutako ariketa praktiko bat, A eta B kasuen artean aukeratu beharrekoa (oinarri espezifikoan II. eranskineko gai-zerrendako zati espezifikoari dagokiona).

TESTA

Test motako 25 galdera, bi kasu praktikoetan *BERDINAK DIRENAK*.

Test motako 20 galdera eta erreserbako 5; azken horiek aurreko galderetako bat baliogabetzen bada bakarrik hartuko dira kontuan.

Erantzunak berariaz horretarako emandako erantzun-orrian markatu behar dituzu. Oso garrantzitsua da laukitxoak behar bezala markatzea, orrian bertan adierazten den bezala; hau da, laukitxoak erabat betetzea eta, erantzuna zuzenduz gero, jarraibideak betetzea.

Test motako kasu praktiko honek 20 puntu balio du, gehienez. Galdera bakoitzak lau erantzun-aukera izango ditu, eta horietako bakarra izango da zuzena.

Erantzun OKERREK EZ DUTE PUNTURIK KENDUKO.

ARIKETA PRAKTIKOA

A eta B ARIKETA PRAKTIKOEN artean aukeratu beharko duzu

Bi kasu praktikoetako bat aukeratu, eta kasu horretako 1. ARIKETA eta 2. ARIKETA egin beharko dituzu.

Kasu praktikoa 5 punturekin kalifikatuko da, gehienez.. Ariketa bakoitzean zeharztuko da lortu beharreko gehieneko puntuazioa.

Kontuan izan, kasu biak, A eta B, egiten badituzu, ariketa zero punturekin kalifikatuko dugula.

Ariketen erantzunak galdera-koadernoan bertan eman beharko dituzu, horretarako adierazitako lekuan.

Ez idatzi datu pertsonalik koadernotxo horretan, modu anonimoan zuzenduko baitugu.

Denbora amaitzen denean, eman GUTUN-AZAL HANDIA Epaimahaikideei barruan honako hauek dituela:

- **Test motako probaren erantzun-orri** zuria (orri horia zuretzat gorde). NANA bakarrik idatziko duzu.
- Galderen koadernoan A edo B eredia erantzunda
- Gutun-azal txikia, identifikazio-txartela sartuta.